



DIRU-SARRERAK

- DIRU SARRERAK

Gure diru-sarrerak zenbait akordioen bitartez eskuratuko ditugu.

- **“ReActivate +”** martxan dagoen programan sartzeari buruzko gure helburuetako bat. Programa honek gure produktua merkaturatzea ahalbidetzen du Euskadiko eta Bizkaiko erakunde publikoetan gure makina ezarriz. Izan ere, erakunde publiko hauei makinan egongo den pantaila baten bitartez publizitatea egingo diegu. Modu honetan, beraiek publizitate ona eskuratuko dute eta guk nolabaiteko diru-sarrera.
- Horrez gain, **“Cicloplast”** enpresarekin beste akordio bat zehaztuko dugu plastikoa enpresa honi saltzeko nahian. Salmenta hauen bitartez gaur egungo plastikoa kudeaketa txarra hobetzea dugu helburu. Nahiz eta diru-kantitate handiak ez eskuratu nahikoa izango da gure enpresa finantzatzeko.
- Dena dela, gure makinan dagoen pantaila baten bitartez publizitatea eskainiko diegu gurekin kolaboratzen duten enpresei. Modu honetan, nolabaiteko diru-sarrera lortuko dugu.

Beste eratako helburuak enpresarekiko diru-sarrerei dagokionez, aipatzeko beharra dugu. Epe laburrerako helburuei dagokionez, bildutako plastikoa eta material birziklatuak enpresei era merkeagoan saltzea da. Horrekin batera, makinaren salmenta edo alokairua izango litzateke diru-sarrera nagusia, adostutako enpresei salduz.

Epe luzerako helburuei dagokionez, gure makina jaietan eta ospakizunetan plastikozko edalontzien birziklapena eta salmenta ahalbidetzea dugu azpi-helburu. Hau da, plastikozko edalontziak makinan sartu eta bertan dagoen sistema batek, aukeraketa prozesu bat gauzatu du. Ondoren, higiene-prozesu baten bitartez garbituko ditugu edalontzi hauek, kalitatea bermatuz. Horrela, bezeroaren arreta, konfiantza eta lasaitasuna lortuko dugu. Izan ere, kontsumitzaileak birziklatzeko edo edalontzi garbi hauek erosteko aukera izango dute.

Jarduera Sarrerak	118,004.20 €
Makinaren alokairua	81,509.08 €
Kanpoko enpresak ordaindu behar dutena patrozinatzeagatik	36,000.00 €
Plastikoaren salmenta	495.12 €



DIRU-SARRERAK

PLASTIKOAREN SALMENTA			
1.URTEAN AURREIKUSITAKO PLASTIKO BILKETA (KG)	BILDUTAKOAREN %15 a BERZIKLATU DAITEKE (KG)	KG BAKOITZEKO DIRU KANTITATEA	URTEAN LORTUTAKO SARRERAK
8700	1305	0.3794	495.12

Sarrerak leku desberdinetatik lortuko ditugu. Batetik, aurretik aipatutako Cicloplast enpresari plastikoak salduz lortuko ditugu sarrerak. Aurreikusi dugu 8700 kg plastiko bilduko ditugula urtean gutxi gorabehera. Kontuan hartuta, bildutako plastiko osoaren ehuneko 15-a soilik berzikatu daitekela (1305 ontzi) eta kg bakoitzeko 0,3794€ irabaziko ditugula, gure urteko diru sarrerak, plastikoaren salmentari dagokionez, 495,12€-koak izango dira.

Bestetik, gure makinetan patrozinatua izateagatik, kanpoko enpresek diru kantitate bat ordaindu beharko digute baita ere. Urtean, 36.000€ irabaziko ditugu. Eta nola ez, azkenekoz, diru sarrera gehien emango digun jarduera dugu: makinen alokairua, urtero 81.509,08€ proportzionatuko dizkigula. Guztira beraz, 118,004,20€-ko diru sarrerak edukiko ditugu urtean.